

{ koaderno } Laura Mintegi

Fondoa eta forma politikagintzan

Eremu labainkorra den arren, mintza gaitzen edukiaz eta formaz politikagintzan, mamiaz eta azalaz, mezuaren eta moduaren arteko harremanaz. Gaiari heltzeko aitzakia, Gasteizen talde feministen eta blusen eta nesken artean sortu zen ika-mika da. Gaia sintetizatzeak duen arriskua neureganatuta, honela laburbil daiteke afera: sei gaztek ahoz eraso zioten emakume bati jaietan, emakumeak kexa azaldu zion Blusen eta Nesken Batzordeari eta erasotzaileak desenkusatu egin ziren, baina Batzordeak ez zuen aplikatu aurretik Bilgune Feministarekin sinatuta zuen protokoloa, non esaten den erasotzaile oro kanporatu behar dela txosna gunetik, bai eta kuadrillatik ere blusa izanez gero.

Bilgune Feministak alde zuzen iragarri zuen eten egingo zuela kuadrillen jaitiera Jatorrak taldekoak igarotakoan, neskari ez duen kuadrilla bakar delako eta, kasualitatea ala ez, erasotzaileak kuadrilla horretakoak zirelako. Jaitzaren egunean feministek, buruak txanoz estalita, pasealdia eten zuten eta istiluak sortu ziren feministen eta kuadrillakoen artean. Hortik etorri da eztabaida interesgarria sare sozialetan: forma azal hutsa da ala mezuaren parte da? Mezuaren parte bada, ez da arrazoi nahikoa forma ere gogorra izateko? Formak gorde behar dira zapaltzailearen arauaren parte izanda?

Eta, bestetik, irauli nahi duen orok eskandaluzko izan behar du eta deseroso? Bentzitu ala konbentzitu egin behar du iraultzaileak?

Argi dut irauli nahi duenak ezinezona sorrarazi behar duela sisteman, zutoinak arrakalatu eta egitura osoan pitzadurak sortu justiziak bidea egin dezan. Sistemak mehatxaturik ikusi behar du bere burua indar berriaren aurrean. Kontua da nola lortu efektibitate handiena egintza eraginkorra izan dadin interpelazioa, sistema burgesa abila baita desaktibatzen erasogarria sueta dakioken mehatxu oro: fagozitu egiten du, indargabetu eta gerora komertzializatu ere egiten du bere balioak kolokan jartzen dituen (hippy eta punk mugimenduak adibide); desprestigiatu egiten du kexaren eragilea, mugimendu sindikalariekin eta feministarekin egin ohi duen bezala.

Sindikalismoak eta feminismoak beren borroka-tresnak etengabe berrasmatzeko beharrezkoak diren, sistemak ahalmen handia duelako aldarrikapen justuak indargabe uzteko: greba orokorrak indarra galtzen du errepikapen hutsa bihurtzen denean, eta feministen ekintzak erraz estigmatizatzen dira gizartean erroturik dauden aurreiritzi matxistak erabilita. Iraultzek alternatibak bilatu behar dituzte etengabe, eta mezu bera emateko forma berriak asmatu behar dituzte, bi helbururekin: batetik, baliagarria den mezua ez zaharkitzeko eta gaurkoturik mantentzeko, eta, bestetik, mugimendutik kanpo dauden herritarrak balio berrietara erakartzeko. Eta posible da asmatzea, herri harresiek halaxe frogatu baitute gazte mugimenduaren borrokan, edo Pussy Riot taldeak borroka feministan. Biek ala biek agerian utzi dute jende askoren babesa bereganatzea beste forma bat ematen diotenean betiko mezu politikoari.

Edukia bezainbeste forma erreibindikatzen dut, mezua eraginkorragoa bihurtzeko: batzuetan talka, beste batzuetan topo; interpelatu eta pedagogia egin; deseroso sentiarazi eta konplizitateak bilatu

Fagozitateaz eta desprestigiatzeaz gain, sistemak badu beste mekanismo bat ezkerreko aldarrikapenak desaktibatzeko: sinplifikazioa. Ez du axola zein den gaia: printzipio etikoak, abortua, immigrazioa ala Estatuaren funtzioa arlo finantzarioan. Sistema beti saiatuko da dimentsio ezberdinak bakar batean gutxitzen, eskuinak munduaren kosmogonia integral eta koherentea eman nahi duelako, non ezberdintasun sozialak sistemikoak eta naturalak diren eta, ondorioz, ordena naturalean ezer aldatzerik ez dagoela frogatu nahi duen.

Horren aurrean, edukia bezainbeste forma erreibindikatzen dut, mezua eraginkorragoa bihurtzeko: batzuetan talka, eta beste batzuetan topo; interpelatu eta pedagogia egin; deseroso sentiarazi eta konplizitateak bilatu. Zailena da, baina, jakitea noiz jokatu batera eta noiz bestera. •

«Zerbait ez bazaizu gustatzen, aldatu; ezin baduzu aldatu, aldatu zure jarrera. Baina ez kexatu»

Sherpa life», jartzen du bere aurkezpen txartelean. Bere lana definitu nahian hasi eta horixe okurritu omen zitzaion, bizi-tzaren bideak ibili nahi dituenarentzat laguntzailea izan baitaiteke Juanjo Lertxundi, batez ere bidea bera gozatzen laguntzen duen xerpa modukoa.

2012. urtean Txertoa argitale-txearen bultzadaz “Ausartu zaitetz! Aldatu eta bihurtu zure ametsak egia” autolaguntza liburua argitaratu zuen. Orain proiektu horri segida ematera dator “Kexarik gabeko mundua” izeneko proiektuarekin. Proposamenak erraza dirudi: kexatzen, kritikatzeko eta gaizki esaka gastatu ohi dugun denbora eta energia arazoen konponbidean inbertitzea. Ez dirudi zaila, baina erraza ez da. «Ni urtarrilean hasi nintzen saiatzeko eta ekainaren 14an lortu nuen helburua». Pentsa, eta Lertxundik badaramatza urte batzuk kexarik gabeko pausajea entrenatzen.

Zure liburuan esaten duzunez, txikitandik era jakinean eta helburu jakinarekin programatuak gara.


Bai, halaxe da. Txikitandik etxean eta eskolan jasotzen dugun heziketaren bidez eta bestelako bizi esperientziak medio, programatuak gaude. Zertarako? Teorian zoriontsuak izateko, baina nire ustez erabat deskonektatuta gaude eta erabat kanpora begira jarriak. Berez zoriontsuak gara, baina egungo gizartean muntatzen ditugun istorioekin ahaztu egiten zaigu zer den benetan zoriontsua izatea, airean dagoen kontzeptu bat balitz bezala irudikatzen dugu. Eta zoriontsu izatea hori baino askoz errazagoa da; unean-unean daukazunarekin gozatzea da, pozekin eta penekin berdin. Haurrek berez hori egiten dute; pozik daudenean pozik daude, eta, kasketa dutenean, erretxinduta. Behin kasketa pasata, ez dira hor harrapatuta geratzen, berriz bizi dute unea. Zorionta-

JUANJO LERTXUNDI

«SHERPA LIFE»

Kexaka, kritikatzeko edo gaizki esaka aritu gabe bizitzen lagunduko dizu, pultsera bat oinarri proposatzen duen ariketari esker. Ez dirudi zaila, baina erraza ez da.

amagoia.mujika@gaur8.info



sun da daukaguna onartzea, gure bertuteekin eta gure akatsekin, eta bizitzea. Bizi, baina letra larritz.

Erraza omen da, baina gero eta gehiago kostatzen zaigu. Belaunaldiz belaunaldi zoriontsu izateko gaitasuna galtzen ari ote gara?

Belaunaldiz belaunaldi gurekiko gero eta deskonektatuago gaudela esango nuke. Azken lau urteotan jendearekin zuzenean ari naiz lanean eta depresio kasu gero eta gehiago ikusten ditut, tartean jende gazte asko. Badi-rudi gero eta gehiago daukagu-la, baina garrantzitsuena falta zaigu zalantzarik gabe; gure bu-ruarekin gustura bizitzea.

Egungo jendarteari oker kontatu ote zaio zoriontasunaren filma?

Ba akaso bai. Askok izanagatik, beti ez daukagunaren falta sumatzen dugulako. Ez diogu baliorik ematen daukagunari, dela osasuna, lana, lagunak, familia, aisialdia... beti gaude ez daukagunaren penaz. Zer gertatzen da? Ez daukagun hori lortzen dugunean ere ez garela erabat zoriontsu. Lortzeko unean poza sentitzen dugu, baina berehala itzaltzen da poz hori, eta berriz nahi dugu gehiago. Ni yogako klaseetan zera irakasten saiatzeko naiz: nire burua maita dezadan, nire burua onar dezadan eta balioa eman diezaiodan naizen bezala. Hori oinarri oso ona da zoriontsua izateko.

«Kexarik gabeko mundua» eraiki nahian, proposamen bat egin duzu orain.

Badakit anbizio handiko proiektua dela, baina abiatu beharra dago. Konturatuta nago denok nahi dugula hobetu pertsona modura; osasun hobea, harreman hobea izan, lan hobea, diru gehiago irabazi... Baina denon helburua hori den arren, jokaera bestelakoa izaten da; kexa, kritika, gaizki esaka aritzea... Jende gehienak ez du ahaleginik egiten pertsona be-

zala hobetzeko. Alderantziz, indarra eta denbora galtzen du kexatzen eta egoerak kritikatzeko. Eta proposatzen dudana ardurazko jokaera bat izatea da: zerbait ez bazaizu gustatzen, alda ezazu. Ezin baduzu aldatu, alda ezazu zure jarrera. Baina, batez ere, ez zaitetz kexatu.

Jarrera aktiboa eta ardurazkoa aipatu dituzu.

Bai. Ulertu behar dugu bere bizitzaren ardura osoa, %100ean, norbanakoak daukala. Hartara, norberaren aukera da zoriontsu izatea edo triste egotea. Benetan kontrola dezakegun gauza bakarra horixe baita: gure pentsamenduak eta gure jokaerak. Ados, kanpoan gauza asko gertatzen dira eta gertaera horiek ezin ditugu kontrolatu, baina kontrola dezakegu gertaera horien aurrean zer egin eta nola jokatu. Hor dago gakoa.

Eta «kexarik gabeko mundua» eraikitzeako pultsera bat proposatzen duzu.

Pultsera, finean, tresna bat besterik ez da, beste edozer gauza izan daitekeen bezala. Proposatzen dudana da pultsera esku batean jartzea eta zure buruari helburu hauxe jartzea: 21 egun emango ditut kexatu gabe, kritikatu gabe eta gaizki esaka aritu gabe. Hitza betetzen ez duzunean, pultsera eskuz aldatu behar duzu eta berriz ere kontatzen hasi.

Pultseraren helburua da konturatzea gure ahotik zein hitz ateratzen diren. Hortik ondorioztatu behar dugu zein pentsamendu ditugun. Eta gure pentsamenduak ezagutzen baditugu, gure jokaerak aldatzeko aukera daukagu. Horrela nire sentimenduak eta ekintzak aldatzeko modua daukat. Emozioak ez dira ez onak ez txarrak. Emozioak direnak dira; onak edo txarrak gure kudeatzeko moduak bihurtzen ditu.

Indarra konponbidean jarri.
Horixe. Egoera bat nire gustukoa ez denean, pentsatu behar



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

dudana zera da: ‘Zer egin dezaket nik egoera hori hobetzeko?’. Jarrera eraikitzailea da bultzatu behar dena, indarra konponbidean jarri behar da. Baina kexarena eta kritikarena pandemia bat da egun, erabat barneratuta ditugu eta askotan ez gara konturatu ere egiten kexatzen ari garela. Erabat inkontzientea da askotan.

Kexatzea, gainera, jarrera erabat pasiboa da. Kexatu, errua gizarteak, bikoteak, trafikoak, eguraldiak edota Rajoyk daukala esan eta kito. Jarrera hori da aldatu behar duguna.

Saiakera norbanakoek abiatu behar dute, baina helburua handiagoa da, jendartean eragin nahi baituzu aldaketa.

Gure gorputzarekin parekatzen dut jendartea. Gure gorputzean nahikoa da zelula txar bat ego-

«Proposatzen dudana da pultsera esku batean jarri eta zure buruari helburu hau jartzea: 21 egun kexatu gabe, kritikatu gabe eta gaizki esaka aritu gabe ematea»



tea gainontzekoak txar bihurtzeko. Jendartean, berdin. Nahikoa da toxikoak diren pertsona bakan batzuk egotea jendartea bera okertzeko. Eta, alderantziz, kexarik gabe bizitzen saiatzen diren pertsona bakan batzuk egonda, lor dezakete ingurukoak berera ekartzea. Norbere jarrera aldatuz lor daiteke ingurukoak aldatzea eta mundu sanoago bat eraikitzea.

Komunitate moduko bat osatu nahi duzu, ezta?

Bai, nik esker oneko tribua deitzen diot. Kezka eta jakin-min berdintsuak dituen jendearentzat topagunea izatea nahi nuke, tarteka elkartu eta esperientziak partekatzeko. Tribu horretako partaideen egitekoa izango da jende gehiago erakartzea, jende gehiago konbentzitzea badela bizitzeko beste ja-

rrera bat, askoz sanoagoa. Tribua erabat irekia da, kolore guztietako jendeak parte har dezake. Baldintza bakarra dago: kexarik gabeko mundua eraikitzeke nahia izatea eta komunikazio eraikitzailea bultzatzea.

Dagoeneko 200 lagun zaudete tribuan.

Bai, gero eta jende gehiago ari da gerturatzen. Udan atseden hartu dugu, baina irailetik aurrera Gipuzkoako herri desberdinetan hitzaldiak emango ditugu proiektuaren berri emateko eta jende gehiago erakartzeko. Hitzaldietara etortzen den jendeari pultsera dohainik emango diogu, norbera bere lana egiten has dadin. Gero eta jende gehiago izan kexatu gabe bizi dena, mundua hobea izango da. Hori da proiektu honen erronka.

Zergatik 21 egun? Horrek badauka azalpen zientifikoa, ezta?

Bai. Frogatuta dago pertsonok ohitura berri bat barneratzeko 21 eguneko epea behar dugula; 21 egunez jarraian errepikatu behar dugu jokaera bat gure baitan barneratzeko, gure bihurtzeko, gure buruan neuro-na-etorbide berri bat zabaltzeko.

Zuk lortu omen duzu 21 eguneko erronka.

Bai. Urtarrilean hasi nintzen eta ekainaren 14an lortu nuen. Hala ere pultsera soinean daramat, gogoratzeko. Baina jarrera bat, gauzak hartzeko modu bat barneratzea lortzen duzu.

Edozein gaitasun gureganatzeko lau etapa pasatu behar ditugu; esaterako, gidatzeko baimena lortzeko. Lehenengo

etapan ezgaiak eta inkontzienteak gara. Ez dakigu gidatzen eta ez daukagu barneratuta zer egin behar den auto bat gidatzeko. Bigarren fasean ezgaiak izaten segitzen dugu, baina kontzienteak gara, dagoeneko badakigu zer egin behar dugun gidatzeko. Hirugarren fasean gai gara eta kontziente gara. Badakigu gidatzen, baina etengabe ari gara pentsatzen gidatzen ari garela. Eta, azken fasean, laugarrenean, gai gara eta inkontzienteak gara. Badakigu gidatzen eta joan gaitzke ondokoarekin hizketan edo paisaiari begira, barneratuta daukagulako gidatzeko ekin-tza. Eta arazoren bat sortzen bada, alarma pizten zaigu eta kontziente izatera pasatzen gara. Hori da lortu beharrekoa, jorkaera bat erabat barneratzea eta gure egitea. Eta hori da pultseraren helburua.


Duela lau urte sortu zenuen Donostian Gausartu Zentroa. Zure bizitzan norabide aldaketa bat izan zen.

Hogeita bi urte aritu nintzen informatikari modura enpresa berean lanean. Duela lau urte nire bizitzako etapa hori amaitu zela eta berri bat abiatu behar nuela sentitu nuen, eta Donostian zentro bat ireki nuen. Bertan yoga, meditazioa eta terapia desberdinak egiten ditugu.

Niretzat, baina, ez zen mundu berria. 2000. urtean eta nire bizitzako krisi baten ondorioz iritsi nintzen yoga mundura. Eta ordutik ibilbide bat egin dut eta mundu berri bat ireki zait begien aurrean. Pixkanaka nire sufrimendu maila jaisten joan da, gertatzen zaizkidanak beste modu batera bizitzen ikasi dut. Niretzat baliagarria izan dena besteeteei eskaintzen diet orain nire zentroan eta nire terapietan.

«Sherpa life» omen zara.

Izen horixe bururatu zitzaidan bai. Finean, bizitzako laguntzailer modukoa izan nahi nuke. Jendeari lagundu nahi diot bere pentsamenduak eta jokaerak identifikatzen eta, kalte egiten badiote, aldatzen saiatzen. Zerbait tresna jarri nahi ditut jendearen eskura bizitzako egoera



«Bere zoriontasunaren ardura osoa, %100ean, norberak dauka, benetan kontrola dezakegun gauza bakarra gure pentsamenduak eta gure jokaerak baitira»

«Azken urteotan jendearekin lanean ari naiz eta depresio kasu gero eta gehiago ikusten ditut. Gero eta gehiago dugu, baina garrantzitsuena falta zaigu: gure burua onartzea»

desberdinak kudeatzeko gaitasuna izan dezaten eta zoriontsuagoak izan daitezen.

Zein jende mota gerturatzen da zuen zentrora?

Normalean 35 urtetik aurrerako jendea, 60 urte bitartean. Dagoeneko bizi esperientzia pixka bat pilatuta duen jendea izaten da. Normalean “dena” daukana, baina, hala ere, zerbait falta zaiola sentitzen duen jendea izaten da, daraman bizitzarekin gustura ez dagoena. Normalean, hamarretik zortzi, emakumeak izaten dira.

Zentroan egiten dudana lanaz gain, Usurbilgo Sendategian ere egiten dut terapia bertan dau-dena gaixoekin; yoga, meditazio teknikak, *mindful*... Azken finean funtsa da arreta jartzea gure pentsamenduetan eta horiek aldatzeko ahalegina egitea. Emozioak kudeatzeko tresnak eskaintzen saiatzen naiz. Baina abiapuntua beti gure burua onartzea da, bere gauza onekin eta txarrekin. Eta hori da ingurukoak onartzen hasteko abiapuntua. Gure burua den bezala ez badugu onartzen nahiko lan izango dugu gainontzekoak onartzeko.

Bizitzako hiru «P»-ak nabarmentzen dituzu.

Bai, beharrezkoak dira: pasioa, pazientzia eta pertseberantzia. Bizitzan edozein erronka aurrera eramateko beharrezkoa da hiru gauza horiek izatea. Pasioak indarra ematen digu, motibazioa; pazientziak erronka horretan mantentzen laguntzen digu eta pertseberantziak eguneroko lana eskatzen digu. Dena ezin da lortu, baina uste duguna baino gauza askoz gehiago lor ditzakegu.

Umetatik gure emozioak kudeatzen erakutsiko baligute, dena samurragoa litzateke?

Zalantzarik gabe. Arazoa da ez dela komeni. Zergatik? Jendea gero eta ezjakinagoa izan, gure burua eta gaitasunak gero eta gutxiago ezagutu, orduan eta otzanagoak eta maneiatzen errazagoak garelako. Hori komeni zaio sistemari. Ez zaio komeni bere emozioak kudeatzen eta arazoetan baino irtenbideetan indarra jartzen duen jende aktiboa. Artaldearen komeni zaio.

Egun asko hitz egiten da hezkuntza emozionalaz, adimen emozionalaz...

Egia da gauza batzuk aldatzen ari direla, sumatzen da mugimendua arlo sozialean, politikoan... Kontzientziaren aroa bizitzen ari garen sententzioa daukat eta hori, zalantzarik gabe, baikorra da oso. Gure bizitzaren erabateko ardura hartu behar dugu.



Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

Nola aldatzen diren gauzak, bai. Ikasturte bukaeran lankide batek baino gehiagok, animo artean, doktorego tesiaren garapenaren abenturak kontatu zizkidan. Orduan ez zela ez sarerik ez Google bilatzailerik ez ordenagailurik ez egungo bulegoko tresna ahaltsurik ez ezer. Orduan dena zela papera, liburutegi fisikoa, idazteko makina. Miresten ditut.

Astebete falta zait doktorego tesia depositatzeko. Lo eta jan gutxi. Lan eta urduritasun asko. «Bizitzan behin eta bizitza guztirako!», esaten zidaten lankideek. «Zuretzat da eta zurekin egongo da beti», zuzendarietako batek. Gogorra da doktorego tesiaren kontu hau. Borondate handia eskatzen du. Eta diziplina. Eta ordena. Baina polita ere bada orrialde kopuruak gora egiten duela ikustea. Kapituluak betetzen doazela. Zentzua eta forma hartzen ari dela sentitzea. Zure-zurea dela. Baina, batez ere, bukaera laztantzea.

Bukaeran nago. Urduri, baina ilusio handiz. Eta inoiz baino gehiago oroitzen naiz lankideek kontatzen zizkidaten abentura haietaz. Garai hartan lan egiteko moduez. Eta pozten naiz, nahi gabe, doktorego tesia XXI. mendean egi-

teko aukeragatik. Miresten ditut aurreko mendekoak.

Azken astean erreferentziak txertatzen ibili naiz. Hor sentitu dut, batez ere, XXI. mendearen arintasuna. Zitak eta erreferentziak dokumentatu eta testuan txertatzeko tresnek urrea balio dute. Google Scholar bilatzailearekin (<https://scholar.google.com>) eta Refworks erreferentzien kudeatzailearekin (<https://www.refworks.com>) maitemindu naiz. Lehenak erreferentzia sortzen zidan (kasu gehienetan zuzenketa bat edo beste eskatzen du, baina nik aukeratutako arauak aplikatuz sortzen du, APA kasu: https://en.wikipedia.org/wiki/APA_style). Eta klik batekin, Refworks kudeatzaileko nire kontura esportatzen du. Refworks erreferentzien kudeatzaile bat da eta erreferentzien antolaketa errazten du. Eta “bibliografia sortu” botoia klikatu eta... “artxila mortxila”, magia egiten du.

Erreferentzien kudeatzaileak ikerlari eta liburuazaintzat oso baliagarriak diren tresnak dira. Eta ia ezinbestekoak gaur egun. Informazioa inoiz baino eskuragarriago dago, erraz eta azkar aurki daiteke. Informazio iturriak esponentzialki hazi dira. Eta, horrekin, ikerlariak inoiz baino informazio gehiago kudeatu behar du, iturri ezberdinetatik datorrena

homogenizatu edo bateratuz. Horretan laguntzen dute erreferentzien kudeatzaileek. Are, ageriko abantaila horri, erreferentzia kudeatzaile, bilatzaile eta testu editoreen arteko bateragarritasuna gehitu behar zaio, euren artean “hitz egiteko” gai izanez, eta kudeaketa erabat sinplifikatuz.

Internetek, partikulariki, eta teknologiek, oro har, ikerlariaren lana irauli dute. Sareak informazioa gure laneko mahaira ekartzen digu, eta mota guztietako tresnek informazio hori kudeatzen laguntzen dute. Lan nekeza da doktorego tesiarena (eta zer esanik ez beka baten laguntzarik gabe, beste zerbaitetan lan egitea ezinbestekoa denean, bizi ahal izateko). Nik badakit zenbat energia inbertitu dudana, zenbat izerdi isuri, eta ezin irudika dezaket nola arituko ziren XX. mendean. Zein ezberdina izango zen doktorego tesiaren garapenaren prozesu guztia. Eta beste teknologia batzuekin bada ere, niri ere iritsi zait: bukaera laztantzeko eguna. Eta barrua goxatzen du horrek.

Teknologia aldatu dira, baina orain sentitzen dudana XX. mendekoek ere sentitu izan zutela esango nuke. Nola aldatzen diren gauzak, berdina sentitu arren. •

arkitektura / zientzia / teknologia



Internetek, partikulariki, eta teknologiek, oro har, ikerlariaren lana irauli dute.

GAUR8

3 BEGIRADA:

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



DANIEL VELEZ

ASKATASUNAREN ALDEKO MARTXAK, ARATZURIN TOPALEKU

1977ko abuztuaren 28an Askatasunaren Aldeko Martxa-ren amaierako ekitaldia egin zen Aratzuriko zelaietan. Martxa uztailaren 10ean hasi zen, eta Agurain, Gernika, Lodosa eta Zarauztik abiatutako zutabeek Euskal Herri guztia zeharkatu zuten, Aratzurira iritsi bitartean. Telesforo Monzonnek egin zuen amaierako ekitaldiko hitzartze nagusia, Gobernu espainolak Europa iparraldeko zenbait herrialde-tara bidali zituen hamabost euskal herritarren laguntzaz. Argazkia Daniel Velezek (Donibane Lohizune, 1938) ateratakoa da. Bere aitaren eskutik hasi zen argazkilaritzan, eta Parisera iristean ekin zion argazkilari profesionala izateari. Euskal Herrira bueltan, "Soud Ouest" egunkarian jardun zuen erretiroa hartu arte.



Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

INDARRAK EMATEN DIO JARRAIPENA USADIOARI

Usadioak, gure herrietako jaien bizkarrezurra osatzen duten ohitura zaharrak. Mantendu beharrekoak omen, batzuen esanetan, hurkoari kalterik egiten ez bazaio bederen. Belaunaldiz belaunaldi transmitituak, jasotzen duena behartuta dago bere ondorengoei haren berri ematera. Hala ikasi dute zubietarrek, eta hala egin dute urtee tan zehar. Zuhaitz enbor bat du oinarri tradizioak, jaietako hasiera emateko herriko plazan jartzen dutena. Zubietan, argazkiak erakutsi lez, indarrak ematen dio jarraipena usadioari. E. Arruti

Zaharrak berri

**Xabier Mikel
Errekondo**

Podemos alderdia sortu aurretik ja da Kongresuan alkandora hutsean ibiltzeagatik kargu hartu zidaten. Hura ez zela etxe handirako itxura. Parlamentarien lanaren duintasuna urratzen omen nuen. Eutsi ezin eta, bat-batean, erantzuna atera zitzaidan ezpain ertzetik. Alkandora erantsiz gero egokiago egongo ote nintzen galdetu nion, alboan nuen letratuaren irribarre eutsitakoaren testigantzapean. PPko atso enperifollatuetariko bat zen, zaharra bezain zaharkitua. Ez zuen ez orduan atsoak irudikatuko agindu duintasun goreneko Estatuko Gorteetan gaur horrenbeste parlamentari ikusiko zituenik alkandora hutsean... Jaki na da politikagintzan entzulearen iritzian

itxurak %80 eragiten duela, eta, mezuak, aldiz, %20 baino ez. Modan dago mangak jasota alkandora hutsean joatea. Modan daude egungo egoera larria irauli eta aldatzeko ahalmena beren buruari soilik airtortzen dieten alderdi berriak.

Berriak zaharren orde, diotenez. Horrela esanda, ardoarekin ez, ados egon ninteke. Zaharra ez da halabeharrez zaharkitua, iraultzailea ere izan daiteke. Berria ere ez da zertan berritzaile. VOX, UPyD eta C's alderdiek aldaketarako ezer berririk eskaintzen ote dute ba? Aitzitik, atzera egitea dute xede; 78ra gutxienez. Alderdi berri xamarrek izanagatik, zaharkituta jaio dira. Berrietan berriena, Podemos, aldaketaren berme bakarra omen.

Baina, beraien proposamen aurrerakoienak dagoeneko Euskal Herrian habian dira edo alderdi hainbatek hamarkadak daramatzate aldarrikatzen. Gobernua bereganatzeko lehian, modan dagoen alkandora hutsean janzten dira. Baina itxura ez da dena. Dagoeneko "kasta" arbuiaztetik neurri aurrerakoienetan atzera egitera igaro dira, alderdi zaharkituen antzera. Zer du ba Uriarte jaunak berritzailetik? Berriak bai, baina dagoeneko zaharkitua.

Izan ere, egun ekoizten diren gailu berrien iraungitze data hain da laburra... Eta, hala ere, asko eta asko Media Markt-era joango da.

Zaharrak berri. •